# Nafarroako Online Errenta

# 2024

# Simulagailua

ESKULIBURUA 3 URRATSETAN

# AURKIBIDEA


AURKIBIDEA ..... 2

HASIERA ..... 3

1. DATU PERTSONALAK ETA FAMILIARRAK ..... 5

- Aitortzailearen datuen inprimakia ..... 5
- Lan esparrua ..... 6
- Familia unitatearen datuen kudeaketa ..... 9
  - Eransteko ..... 9
  - Ezabatzeko ..... 9
  - Editatzeko ..... 10
- Akatsen kudeaketa ..... 13
  - Akats mezua ..... 14
- Nire profila ..... 15

2. DATU EKONOMIKOAK ..... 19

- Lan esparrua ..... 19
- Aitorpenaren atalak ..... 20
- Datu ekonomikoen kudeaketa ..... 22
- Akatsen eta abisuen kudeaketa ..... 25
  - Abisu mezua ..... 26
- Gehitu atalak. ..... 27
  - Bilatu ..... 28
  - PFEZ menua ..... 31
  - Lupa ..... 38

3. AITORPENAREN EMAITZA ..... 40

# HASIERA

Hasierako pantailan simulazioaren hiru fase agertzen dira, fase horietan egiten baita aitorpenaren emaitzaren simulazioa.




Hasieran, elementu bat agertzen da (kolore urdineko hondoa duena): erabiltzaileari pantailako elementuen berri ematen dio, pantailaren egitekoa ezagut dezan. Elementu hori aplikazio guztian agertzen da.




Programak informazioa ematen dio erabiltzaileari simulazioaren emaitza lortzeko osatu beharreko hiru faseei buruz:

Hiru bloke horiek izenburu bana dute, baita azalpen bana ere, erabiltzaileak zeregin-multzo bakoitzean egin behar duena ulertzeko.

Hurrenkera logiko bat proposatzen da, aitorpena osatu eta entregatzeko balio duena:

1. Adieraztea nork osatzen duen familia-unitatea.




2. Datu ekonomikoak sartzea.




3. Aitorpenaren simulazioaren emaitza lortzea.




Zeregin-multzo bakoitza esteka bat da, multzoko zereginak egiteko bidea ematen duena. Hurrengo multzora pasatzen ahalko zara, baldin eta aurreko zeregin guztiak zuzentzat eman badira.

Erakusten dugun botoi honek ere aukera ematen dizu lehen zeregin-multzora joateko. Datu pertsonalen eta familiarren esparrura igarotzen da. Morroi bateko “hurrengoa”/”aurrekoa” botoien antzera jokatzen du. Elementu hori aplikazio guztian agertzen da.



# 1. DATU PERTSONALAK ETA FAMILIARRAK

## Aitortzailearen datuen inprimakia

Aitortzailearen datuak sartzea da lehen urratsa datu pertsonalak eta familiarrak osatzeko.



**Familia-unitateko kidea editatu aitortzailea**

| | |
|---|---|
| * 1. deitura | |
| 2. deitura | |
| * Izena | |
| * Jaiotze data | dd/mm/aaaa |
| Heriotze data | dd/mm/aaaa |
| * Desgaitua | |
| * Sexua | |
| * Egoera zibila | |
| Erregimen ekonomikoa | |
| * Familia ugaria edo 5/2019 Foru Legean sartuta dagoena | No |

Deuseztatu eta atera | Gorde eta atera

Datu horiek osatutakoan, programako datu pertsonalen eta familiarren pantaila nagusira joanen zara.

# Lan esparrua

Aplikazioak ibilbide bat erakusten du erabiltzaileak jakin dezan zer zeregin-multzotan dagoen. Fase bakoitzean barna mugitzeko modu bat ere bada: mugarri zenbakidun bakoitza esteka bat da eta sakatzen ahal da. Elementu hori aplikazio guztian agertzen da.




Erabiltzaileak ibilbide-barraren gainean kokatuta dauden hiru esteka ditu, honako ekintzak egiteko:




Aitorpenaren datuak ezabatzen ditu eta hasierako pantailara birbidaltzen du.







Webgunearen testuen hizkuntza aldatzeko.



Inprimatu zirriborroa

Egiten ari den aitorpenaren PDFa eskuratzen da.

**Aitortzailea**

| DEITURAK ETA IZENA | SEXUA | JAIOTZE DATA | EGOERA FAMILIARRA | HERIOTZA DATA | IFZ |
|---|---|---|---|---|---|
| Aitortzailea | H | 01/01/2000 | C | | 00000100P |

| KALE, PLAZA EDO ETORBIDEAREN IZENA (ZERGA HELBIDEA) | ZK. | ATARI GAIN. | BLOKEA | ESKAILERA | SOLAIRUA | ATEA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| CL - | 1 | | | | | |

| OSAGARRIA | HELBIDE BERRIA (999) | BIZILEKU-KODEA (799) |
|---|---|---|
| | N | 1 |

| HERRIA | POSTA KODEA | ERREGIMEN EKONOMIKOA | TELEFONOA | DESGAITASUNA |
|---|---|---|---|---|
| - | 31000 | Lorpenak | | N |

**Ezkontidea/BF**

| DEITURAK ETA IZENA | SEXUA | JAIOTZE DATA | HERIOTZA DATA | IFZ | DESGAITASUNA |
|---|---|---|---|---|---|
| ,,Ezkontidea | M | 01/01/2000 | | 00000200Q | N |

**Murrizketa eskubidea duten ondorengoak**

| DEITURAK ETA IZENA | SEXUA | JAIOTZE DATA | LOTURA / Ahaidetza | HERIOTZA DATA | IFZ | DESGAITASUNA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| .,,Semea | H | 01/01/2010 | A/1 | | 00300000B | N |

**Adin nagusiko semeak edo alabak, ordezkaritzako kuradoretzaren pean daudenak**

**Murrizketa eskubidea duten aurrekoak**

**Laguntza duten pertsonak**

| | ZERGA ESLEIPENA | LIKIDAZIO OINARRIA | KUOTA OSOA |
|---|---|---|---|
| 1. KIDEA | | 40.000,00 | 10.231,27 |
| 2. KIDEA | | 30.000,00 | 7.062,63 |
| GAINERAKO KIDEAK | | | |
| GUZTIRA | | 70.000,00 | 17.293,90 |

**AITORPENAREN EMAITZA**

| | ZENBATEKOA |
|---|---|
| 1. Negatiboa edo itzultzekoa | |
| 2. Positiboa edo ordaintzekoa | 5.156,68 |

1.- EZ DU ORDAINKETA ZATIKATUKO. Ordaintzeko modua:

A.1 ☐ 710 ereduko ordain-gutunaren bitartez

B.1 ☐ Honako kopuru hau 997 nire kontuan kargatuz

2.- ORDAINKETA ZATIKATUKO DU. Ordaintzeko modua:

A.2 ☐ 1. eta 2. epea 710 ereduko ordain-gutunaren bitartez

B.3 ☐ Azpian azaltzen den kontuan

997 EURO 998 EURO

Eman kontuaren zenbaki guztiak kuotaren emaitza bai "ORDAINTZEKOA" bai "ITZULTZEKOA" denean

| IBAN AURREZENB. | ENTITATEA | BULEGOA | K.D. | KONTU ZENBAKIA |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

Baliozkotze mekanikoak aurkezpena ziurtatzen du:

ZIRRIBORROA

Ikusten den hurrengo elementuak erabiltzaileari pantailako elementuen berri ematen dio, pantailaren egitekoa ezagut dezan. Hau elementu komuna da aplikazio guztian.

**Datu pertsonalak eta familiarrak**

ⓘ **Sartu itzazu zure datu pertsonalak. Beharrezkoa bada, familiaren datuak sartzen ahal dituzu "Erantsi kide bat familiari" botoiaren bidez.**

Bloke honetan aitorpenean betekizun zehatz bat duten pertsona guztiak gehitu behar dira: aitortzailea, ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea, kenkariak gaitzen dituzten pertsonak, etab.

Aitortzaileak pertsona bakoitzaren kutxa sakatu dezake eta kutxa horrek aukera ematen du familiako kide bakoitzaren informazio zehatza ikusteko. Gainera, kutxaren bukaeran "Nire profila" esteka dago eta horrek erabiltzaileari aukera ematen dio bere aitorpenean sekzioak gehitzeko.




Pertsonen kutxa horietako bakoitzean, honako esteka hauek daude:




Honen bidez, aitortzailea ez den beste edozein elementu ken daiteke familia unitatetik.




Hau ageri da programatik zuzenean gehitu diren ahaideetan, eta beste batzuetan, Ogasunak haiei buruz aldez aurreko informaziorik ez duenean.

Erakusten dugun botoi-barrak ere aukera ematen du zeregin-multzoen artean mugitzeko. Pantaila honetan badira botoi batzuk honako ekintza hauek egin ahal izateko:







Hasierako pantailara itzultzeko.




Datu ekonomikoen kudeaketan sartzeko (akats nabarmenik ez badago).




Familiari kide bat eransteko: ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea, ondorengoak (seme-alabak edo desgaituak), aurreko ahaideak eta laguntza behar dutenak.

Botoi-barrak morroi bateko “hurrengoa”/”aurrekoa “botoien antzera jokatzen du, eta aplikazio guztian agertzen da.

# Familia unitatearen datuen kudeaketa

## Eransteko

Beheko aldeko botoi-barran, botoi bat dago aitorpenari pertsona bat gehiago erantsi ahal izateko. Aukeratu behar da zein den pertsona horren betekizuna aitorpenean. Pertsona-mota bakoitzeko, kopuru bat jakin bat sar daiteke gehienez, eta kopuru hori bete bada, ez da mota hori agertuko.




## Ezabatzeko




Pertsonen zerrendan, haietako bat ezabatzen ahal da ikono hau sakatuz: 


Berrespena eskatzen du:




Halaxe da aplikazio guztian.

# Editatzeko

Pertsonaren datuak editatzearren, datuak sartzeko inprimaki estandarra erakusten da. Familiako kidearen arabera hauexek izanen dira:

<u>Ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea</u>


Familia-unitateko kidea editatu ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea

* 1. deitura

2. deitura

* Izena

* Jaiotze data — uuuu/hh/ee

Heriotze data — uuuu/hh/ee

* Desgaitua

* Sexua

Deuseztatu eta atera | Gorde eta atera

Adin nagusiko ondorengoak edo seme-alabak, ordezkaritzako kuradoretzaren pean daudenak


**Familia-unitateko kidea editatu adin nagusiko ondorengoak edo seme-alabak, ordezkaritzako kuradoretzaren pean daudenak**

Adin nagusiko semea edo alaba, ordezkaritzako kuradoretzaren pean dagoena

* 1. deitura

2. deitura

* Izena

* Jaiotze data — uuuu/hh/ee

* Esleipena

* Sexua

Heriotze data — uuuu/hh/ee

* Desgaitua

* Ahaidetasuna

Deuseztatu eta atera | Gorde eta atera

Aurreko ahaideak


**Familia-unitateko kidea editatu aurreko ahaideak**

* 1. deitura

2. deitura

* Izena

* Jaiotze data — uuuu/hh/ee

* Esleipena

* Desgaitua

* Sexua

Deuseztatu eta atera | Gorde eta atera

Laguntza behar dutenak




Edizio-pantailek ekintza-barra bat dute, datuak deuseztatu edo gorde ahal izateko. Lehenbizikoa aukeratuz gero, ez dira datuak gordetzen eta, bigarrena aukeratuz gero, bai.




Deuseztatuz gero, berrespena eskatzen da datuetako aldaketak nahigabe ez ezabatzeko.



# Akatsen kudeaketa

Inprimaki batean sartu beharreko datuak gordetzeko eskatu denean soilik egiaztatuko da akatsik edo abisurik ote dagoen.

Ezusteko bat atzemanez gero, mezu honen bidez adieraziko da:




Bi aukera daude:



Inprimakian gelditzen da atzemandako akatsak edo abisuak berrikus daitezen.



Gordetzen du eta ateratzen da, baina atal akastun hori markatzen du.

Editatu beharreko inprimakian segitzen baduzu, edo ondoren hartan sartzen bazara, programak markatu eginen du zer datu dauden egiaztatzeko.

## Akats mezua

Ondotik akats larri bat ikus daiteke. Akats mota horiek zuzendu behar dira, zereginen beste multzo batera joan ahal izateko.




Zerrendan ikus daitezke atzemandako akatsak (kasu honetan familiako kideak). Hala, jakin daiteke zein pertsonak edo atalek dituen berrikusi beharreko arazoak.




Edizioan sartu gabe, posible da gorabeheren zerrenda berrikustea esteka hauen bidez (Erakutsi gorabeherak <-> Ezkutatu gorabeherak).




Erabiltzaileak hurrengo zeregin-multzora joan nahi badu akatsak zuzendu gabe, programak ez dio utziko. Hurrengo mezuak horren berri ematen du:




Datuei buruzko abisu horiek aitorpen guztian ager daitezke.

# Nire profila




"Nire profila" aukeratzen baduzu, programak honako pantaila hau erakutsiko dizu, zeinak zergadunaren egoera pertsonalaren zenbait datu adierazteko aukera ematen baitu, eta horrela agertuko zaizkizu aitorpena osatzeko behar dituzun atalak:

- Honako hau naiz: ... Hori jakinda, zure ezaugarriei dagozkien atal egokiak ematen zaizkizu.
- “Urte horretan hau sartu, gehitu edo aitortu nahi dut”; urte horretan egindako jarduera ekonomikoak zein diren jakinda, haiei dagozkien atalak agertuko dira.
- “Murriztu edo kendu”; jakinez gero zein diren zergadunaren ustez berari dagozkion kenkariak, haien araberako atal egokiak agertuko dira.



Hautapenaren mekanika honako hau da. "Honako hau naiz: ..." sakatuz




Aukeren edo galderen zerrendan kokatzen da. Bertan ... aitortzailearen profilarekin bat datozen galderak aukeratzen ahal dira.




Aukeratutako ezaugarriak erregistratuta gelditzen dira, gero berrikusi ahal izateko, zerrenda gisa, "Honako hau naiz..." kutxan



Beste bi kategoria hauetan ere antzera aukeratzen ahal dugu:

- Urte horretan hau sartu, gehitu, aitortu nahi dut...
- Murriztu edo kendu...




Zerrenda luzea bada, lehendabiziko aukerak agertzen dira




"Erakutsi gehiago" botoia sakatuta, zerrenda osoa erakusten da.



Programak modu berean jokatzen du kenkarien kasuan:







Beheko aldean bi botoi daude, egindako hautaketei lotutako sekzioak deuseztatzeko eta eransteko. Botoi horiek eskuragarri izanen dira datu ekonomikoen 2. multzoan sartzean.



# 2. DATU EKONOMIKOAK

## Lan esparrua

Aplikazioak ibilbide bat erakusten du, erabiltzaileak jakin dezan zer zeregin-multzotan dagoen: kasu honetan, datu ekonomikoen kudeaketa.




Ikusizko elementu honek erabiltzaileari pantailako elementuen berri ematen dio, pantailaren egitekoa ezagut dezan.




Erakusten dugun botoi-barrak ere aukera ematen du zeregin-multzoen artean mugitzeko. Datu pertsonal eta familiarren pantailara itzultzen da edo aitorpenaren emaitzara pasatzen da (akats larririk ez badago). Morroi bateko "hurrengoa"/"aurrekoa" botoien antzera jokatzen du.



# Aitorpenaren atalak

Bloke honetan agertzen dira aitorpenaren barneko zergadunendako erabilgarri dauden zergaren atal guztiak.

Hasieran, zergadunak berak "Nire profila" aukeraren bitartez sartu dituenak ageri dira, betiere erabiltzaileak aurreko zeregin-multzotik hautatu baditu (1. blokea).

Era berean, erabiltzaileak beste atal batzuk gehitu ditzake "+Erantsi atala" botoia erabiliz. Funtsean, atal horiek inprimaki ofizialean daudenak erakusten dituzte.

Sekzioaren kutxa sakatzen ahal den elementua da eta bidea ematen du aitorpenaren atal bakoitzeko informazio zehatza ikusteko.



Sekzio bakoitzean ondoko elementu hauek daude:

- Zergaren sekzioaren deskribapena.
- Egiten ari den aitorpenaren barnean sekzio hori duten zergadunak.
- Sekzioaren barnean dauden atalen zerrenda.
- Gorabeherak badaude, haien zerrenda.







Sekzioa duten pertsonak:




Sekzioaren atal zehatzak. Sekzio guztietan ez dago atalik (PFEZ menuan, ikus daiteke zer sekziotan dauden atalak).




Zergadun zehatz baten atalak iragazteko, botoi-barra bat dugu, pertsona zehatz hori edo guztiak hautatzeko aukera ematen duena: haren bidez ikus daitezke sakatu den zergadunari dagozkion sekzioak.



# Datu ekonomikoen kudeaketa

Atal bat pertsona bat baino gehiagoren aitorpenaren barnean badago, pertsonen barra erabil dezakegu adierazteko horietatik zein dugun aktibatuta (zein ari garen ikusten) eta aktibatu nahi duguna hautatzeko (aski da izenaren gainean sakatzea)




Honako hau sekzio baten edizioaren adibidea da. Bi atal ageri dira bertan: soldata eta Gizarte Segurantzako kotizazioak. Bata bestearen atzean agertuko dira. Sekzioak dituen datuen kopuruaren arabera, beharrezkoa izan daiteke ohiko korritze-barra erabiltzea.




Datuen edizioan ohikoa izaten da behin eta berriz kontzeptu ekonomiko zehatz bat sartu behar izatea: adibidez zenbait soldata.

Honako tresna hauek daude kontzeptuen zerrenda lantzeko:

 Aukera ematen du lehendik dagoen sarrera bat editatzeko.

 Aukera ematen du lehendik dagoen sarrera bat zerrendatik ezabatzeko.



Daturik gabeko sarrera bat sortzen du, zerrendari gehitu ahal izateko.

Sarrera bat editatzen dugunean, goiko aldeko zerrendan ikusten dugu eta zerrendaren azpian edizio moduan (editatzen ahal diren eremuak). Egoera horretan datuak banaka editatzen ahal ditugu, baita gorde eta deuseztatu ere. Garrantzitsua da gogoratzea deuseztatzeko edo gordetzeko ekintza hori zerrenda jakin horri dagokiola. Aitorpenean gordetzeko, sekzioari/atalari dagokion botoia sakatu behar da.

- Kasu honetan, sarrera bat aldatzean azaltzen den irudia ikusten da: dauden datuak agertzen dira eta haiek aldatzeko aukera dago:




- Kasu honetan, sarrera bat txertatzean azaltzen den irudia ikusten da: ez da daturik ageri:



Bestalde, zerrendetatik kanpoko datuen edizioa zuzena da; izan ere, besterik gabe aurkeztutako datua aldatzen da edo datu berria sartzen da, hura jaso gabe baldin badago.




Aplikazioaren formulario gehienetan, honako informazio hau ematen zaio zergadunari:

- **<u>Datuen lauki kalkulatuak</u>**, irakurtzeko bakarrik diren testu-koadroen bidez erakusten direnak, eta eguneratzen direnak aitorpenaren atal bakoitzean datuak sartu ahala.




- **<u>Lauki ofizialaren kodea</u>**, datuak sartzeko moduaren arabera erakusten dena:

  - Zerrenda baten gisakoa, non kodea dagokion zutabean agertzen den taularen amaieran.




  - Datuen koadro baten gisakoa; kasu honetan, datua editatzeko edo irakurtzeko koadroaren ondoan agertuko da.







Edizio-pantailek ekintza-barra bat dute, datuak deuseztatu edo gorde ahal izateko. Lehenbizikoa aukeratuz gero, ez dira datuak gordetzen eta, bigarrena aukeratuz gero, bai.



# Akatsen eta abisuen kudeaketa

Inprimaki batean sartu beharreko datuak gordetzeko eskatu denean soilik egiaztatuko da akatsik edo abisurik ote dagoen.

Ezusteko gorabeheraren bat atzemanez gero, mezu honen bidez adieraziko da:




Bi aukera daude:



Inprimakian gelditzen da atzemandako akatsak edo abisuak berrikus daitezen.



Gordetzen du eta ateratzen da, baina atal akastun hori markatzen du.

Editatu beharreko inprimakian segitzen baduzu, edo ondoren hartan sartzen bazara, programak markatu eginen du zer datu dauden egiaztatzeko.

## Abisu mezua

Akatsez gainera, programak abisuak ditu, datuetan egoera arraroren bat dagoela adierazteko. Hala ere, zuzena izan daiteke. Abisu mota horiek soilik jasotzen badira, aurrera egin daiteke aitorpenean, beste zeregin-multzo batean sar daiteke eta, azken finean, aitorpenaren emaitza lor daiteke.

Jarraian, abisuen itxura erakusten da, zein pantailatan dagoen, haren arabera:

Atalen blokea: markatuta ageri da zer sekziotan dauden abisuak.




Akatsekin gertatzen den bezala, "Erakutsi gorabeherak" botoia sakatuz, abisuaren xehetasunak erakusten dira.




Datuen sarreraren sekzioa: abisuarekin lotutako datuen sarrera-eremua markatzen da.



# Gehitu atalak.

Atal berriak gehitzeko, bi sistema ditugu. Aukeratu behar dugu zein erabili nahi dugun.




Hirugarren sistema atal jakin batzuetan gaituta dago, pantailaren goialdean, eta horiekin zerikusia duten atalak bilatzen laguntzen du.



## Bilatu

Testu librearen bidezko bilaketak egiteko, "Bilatu" aukeratu behar da "Gehitu sekzioa" menuan.




Programak bilatzaile sinplifikatua erakusten du: termino bat edo batzuk sartzeko aukera ematen du eta zergaren dokumentazioan horiek bilatu ondoren termino horiekin lotutako atalak ematen ditu. Azkenik, horietako bat aukeratu behar da, eta aitorpenean sartu.




Termino bat sartu behar da eta klik egin behar da  botoian.

Adibidean, "soldata" terminoa ageri da, hari lotutako etekina aurkitu nahian. Sekzioen edo atalen zerrenda bat agertzen da, zeinak terminoarekin lotura baitute, egungo testu dokumentazioaren arabera.




Bilaketaren emaitzen artean sekzio edo atal bat aukeratu behar da eta, ondoren, aukeratu behar da zein pertsonari gehituko zaion.






Bilatzailearen bidez bilaketa zehatzagoak ere egin daitezke. Horretarako, ondotik erakusten den botoia sakatuz gero, bilaketaren aukerak handitzen dira.

Bilaketa mota horretan, honako aukera hauek erabiltzen ahal ditugu:

- Atal bati lotutako dokumentuan dauden hitzak sartu ditzakegu.
- Atal bati lotutako dokumentuan agertu behar ez diren hitzak sartu ditzakegu.
- Esaldi zehatz bat bilatu dezakegu: hitzak eta haien ordena.

Hori guztia, aukera horiek banaka erabiliz edo, bestela, aukerak batera erabiliz, guk nahi bezala.

Hona hemen bilaketaren adibide bat:







Edonola ere, posible da datu ekonomikoen zerrendara itzultzea emaitzarik erantsi gabe, bilaketaren bukaerako barrako “deuseztatu” botoiaren bidez.

## PFEZ menua

Bukaeran, atal berriak sartzeko beste aukera bat ere badago PFEZ menua erabiliz (zergaren egitura irudikatzen du, zuhaitz formatuan), datuok aldez aurretik sartu ez badira "Nire profila" menuaren bidez.




Zuhaitz horretako lehen mailan zergaren sekzio guztiak agertzen dira. Sekzio batzuetan, gainera, bigarren maila bat ere zabaltzen ahal da sekzioko atalekin.






 Ikurraren bidez, lotutako sekzioko atalak zabaltzen ahal dira.

Sekzioek atalak izaten ahalko dituzte, atalak beren artean independenteak direla irizten bada.

Ondotik, atalak dituzten sekzioak erakutsiko ditugu.






- **Higigarrien kapitalaren etekinak - Atal berezia aurrezkia**
  - Entitateen funts propioetako dibidendu eta partaidetzak
  - Bazkide, akziodunen... beste etekin edo onura batzuk
  - kontuen etekin positiboak
  - Obligazio bonifikatuen korrituak
  - Kapitalizazio eragiketak eta aseguru-kontratuak
  - Ondasun higigarrien gaineko eskubideak eratu edo lagatzea
  - Atxikipenik gabeko beste errendimendu batzuk. Altxorraren Letrak
  - Higigarrien kapitalaren etekin negatiboak
  - Gastu kengarriak

- **Ondare-gehikuntzak eta ondare-gutxitzeak, eskualdaketetatik datozenak**
  - Gehikuntzak eta gutxitzeak. Higiezinak eta bestelakoak
  - Gehikuntzak eta gutxitzeak. Ohiko etxebizitza
  - Gehikuntzak eta gutxitzeak. Ondasun lotuak

**Atal orokorreko likidazioa. Murriztapenak**

- Ekarpenak, gizarte-aurreikuspeneko sistemei
- Ekarpenak desgaituen aldeko gizarte aurreikuspeneko sistemetara
- Kirolari profesionalek edo goi-mailakoek egindako ekarpena
- Ekarpenak ondare babestuei
- Konpentsazio pentsioak, epailearen erabakia edo notarioaren eskritura dela medio ordainduak

**Kenkariak kuotan**

- Subjektu pasiboaren gutxieneko pertsonal eta familiarragatik
- Zaintzaileen Gizarte-segurantzaren kotizazioagatik
- Ohiko etxebizitzaren errentamenduagatik
- Lanagatik
- Autonomoen jard. enpresarial edo prof.aren ekitaldiko
- Dohaintzengatik
- Sindikatuentzako eta alderdi politikoentzako kuota eta ekarpenak
- Langileek enpresan partizipazioak eskuratzeagatik
- Kenkariak kuotan - Nazioarteko zergapetze bikoitzagatik
- Zerga-konpentsazioa, bizi-aseguruak eta baliaezintasunekoak
- Ceutan eta Melillan lortutako errentak eta beste kenkari batzuk

**Kenkariak kuotan - Ohiko etxebizitzarako inbertsioa**

- Ohiko etxebizitzarako inbertsioa. Etxebizitza-kontua. 1. erosketa
- Ohiko etxebizitzarako inbertsioa. Etxebizitza-kontua. Etxea zaharberritzea
- Ohiko etxebizitzarako inbertsioa. Etxebizitza eraikuntzan/obren amaieran. Erosketa
- Ohiko etxebizitzarako inbertsioa. Etxebizitza eraikuntzan/obren amaieran. Birgaitzea/handitzea
- Ohiko etxebizitzarako inbertsioa. Mailegua. Erosketa
- Ohiko etxebizitzarako inbertsioa. Mailegua. Zaharberritzea/handitzea
- Urteko kenkariaren oinarriaren kalkulua 2024

**Konturako ordainketak. Erregularizazioa. Kuotaren beste kenkari batzuk**

- Gehikuntza, onuren edo kenkarien galeragatik
- Zatikako ordainketak
- Mutualitateei eginiko ekarpenengatiko aparteko kenkaria
- Alargun pentsioengatik
- Erretiro pentsioengatik
- Alarguntza-pentsioen aurrerakinak
- Kenkaria, emantzipatzeko alokatutako etxebizitzagatik
- Kenkaria, bizilekua izateko alokatutako etxebizitzagatik
- Kenkari-aurrerakinak, etxebizitza alokatzeagatik
- Kuotak EESBZgatik eta konturako beste ordainketengatik

Programak aukera ematen du atal hori aldi berean gehitzeko familia-unitateko kide bati edo batzuei.







Azkenean ez bada inongo atalik erantsi nahi, badago hortik ateratzeko aukera menuaren beheko aldeko barrako “deuseztatu” botoia sakatuz.



# Lupa

Ondoren adierazten diren ataletako batean sartzen zarenean, botoi bat gaituko da, lupa bat irudikatzen duena, zerikusia duen beste atalen bat hautatu ahal izateko.




Lupa sakatzean  zerikusia duten atalak hautatzen eta gehitzen ahalko ditugu.



Kasu honetan, lanaren etekinekin zerikusia dutenak ikusten dira:




Ireki nahi diren atalak hautatu ondoan, “Aukeratutako atalak gehitu” botoia sakatuko dugu.

Bat ere ireki nahi ez baduzu, edo zerikusia duten atal guztiak irekita badaude, “Deuseztatu” botoia sakatuko dugu, hautaketa-leihoa ixteko.



# 3. AITORPENAREN EMAITZA

Aplikazioak ibilbide bat erakusten du erabiltzaileak jakin dezan zer zeregin-multzotan dagoen: kasu honetan aitorpenaren emaitzaren berrikuspena.




Ikusizko elementu honek erabiltzaileari pantailako elementuen berri ematen dio, pantailaren egitekoa ezagut dezan.




Ibilbidearen mugarri horrek aitorpenaren emaitzak erakusten ditu zutabeka, zutabe bana zergadun bakoitzeko. Burualdean, pertsonaren izena erakusten du. Aitorpenean bi pertsona baino gehiago badaude, mugitzen ahalko da gainerako horiek ikusteko.






Zergadunaren bistaratzean posizio bat mugitzen du ezkerralderantz.



Zergadunaren bistaratzean posizio bat mugitzen du eskuinalderantz.

Erabiltzaileak botoi-barra eskura du, datu ekonomikoen pantailara itzultzeko, behar den aukeran sakatuz.



Aitorpenaren kalkuluaren emaitzak erakusten dira zergak berak zehazten duen kalkuluaren ordenaren arabera:

Zergadun bakoitzaren aitorpenean dauden kontzeptuak baino ez ditu erakusten.



aitortzailea .... | ezkontidea ....

### Etekinak eta gehikuntzak

| | aitortzailea: Zati orokorra | aitortzailea: Zati berezia | ezkontidea: Zati orokorra | ezkontidea: Zati berezia |
|---|---|---|---|---|
| etekinak | Lana 26.000,00 | Higigarrien kapitala 150,00 | Lanbideko jarduerak 15.960,00 | Higigarrien kapitala 80,00 |
| Zerga oinarria zati orokorra / zati berezia | 26.000,00 | 150,00 | 15.960,00 | 80,00 |

### Murriztapenak

| | |
|---|---|
| Gizarte-aurreikuspeneko sistemak | 2.000,00 |
| Konpentsazio pentsioak | 6.000,00 |

### Likidazio-oinarria

| | aitortzailea: Zati orokorra | aitortzailea: Zati berezia | ezkontidea: Zati orokorra | ezkontidea: Zati berezia |
|---|---|---|---|---|
| Likidazio-oinarria (Orokorra) / Likidazio-oinarria (Berezia) | 18.000,00 | 150,00 | 15.960,00 | 80,00 |
| Eskala | 21,21 | | 20,73 | |
| Kuota (Orokorra) / Kuota (Berezia) | 3.818,34 | 30,00 | 3.308,34 | 16,00 |

Bukaeran, kuota likidoaren emaitza erakusten da, bereizirik eta batera, egindako aitorpenean onartzen diren modalitateak baldin badira.

## Kuota osoa

| | | |
|---|---|---|
| **Kuota osoa** 3.848,34 | **Kuota osoa** 3.324,34 | Batera<br>**Kuota osoa**<br>7.172,68 |

## Kenkariak

| | | |
|---|---|---|
| Pertsonalak eta familiarrak<br>**Pertsona bakoitzeko gutxienekoa** 1.152,00<br>Beste pizgarri batzuengatik<br>**Lanbideko errentak** 700,00 | Pertsonalak eta familiarrak<br>**Pertsona bakoitzeko gutxienekoa** 1.896,00<br>Beste pizgarri batzuengatik | Batera<br>**RL_z148103**<br>3.048,00<br>Beste pizgarri batzuengatik<br>**Lanbideko errentak**<br>700,00 |

## Kuota likidoa

| | | |
|---|---|---|
| **Kuota likidoa** 1.996,34 | **Kuota likidoa** 1.428,34 | Batera<br>**Kuota likidoa**<br>3.424,68 |

## Atxikipenak, erregularizazioiak eta beste kenkari batzuk

| | | |
|---|---|---|
| **Konturako atxikipenak** 2.020,00 | **Konturako atxikipenak** 3.215,00 | Batera<br>**Konturako atxikipenak**<br>5.235,00 |

## Zerga zorra guztira

| | | |
|---|---|---|
| Bereizia<br>**Zerga-zorra** 23,66 Itzuli beharrekoa | Bereizia<br>**Zerga-zorra** 1.786,66 Itzuli beharrekoa | Batera<br>1.810,32 Itzuli beharrekoa |

< Datu ekonomikoak